

## Lorea Belategui Olascoagak bere tesia irakurri du

2013/02/22

Otsailaren 21ean, goizeko 12:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Lorea Belategui Olascoaga Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Garaia Berrikuntza esparruan. Tesiaren izenburua Análisis basado en modelos MARTE para la validación de rendimiento de Líneas de Productos de Sistemas Embebidos eta tesi zuzendariak: Goi Eskola Politeknikoko Goiuria Sagardui eta Leire Etxeberría. Gainera, CUM LAUDE kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Vittorio Cortellessa (University of L'Aquila) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Franco Raimondi (MIDDLESEX University) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Jason Xabier Mansell Rementeria (European Software Institute) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Maider Azanza Sesé (EHU-UPV) Dk. And.
- Idazkaria: Roberto Uribeetxeberría (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Garai honetan, zeinetan teknologia txertatuak eguneroko bizitzan integratuta baitaude, erronka da sistemak ahalik eta kostu txikienarekin eta entrega denbora laburrenarekin sortzea, nahi den kalitatea ziurtatuta eta denbora zein energia kontsumoaren aldetik dauden mugapenak eta bestelako mugapenak errespetatuta. Tesi honetan, funtsean, errendimenduaren analisirako MARTE profilararekin jasotako eredueta oinarritutako ingurune bat garatu da, software produktu txertatuen lerroetarako, diseinu mailan egindako ebaluazioa aintzat hartuta.



Lorea Belategui Olascoaga Tesia